


Heriotzak % 1 gehitu ziren 2025eko lehen hiruhilekoan Euskal AEn

Igoera otsailean kontzentratu zen, eta % 8,3koa izan zen

2025eko lehen hiruhilekoan, Euskal AEn 6.300 pertsona hil ziren, aurreko urteko aldi berean baino % 1 gehiago, Eustaten datuen arabera. Heriotzak % 8,3 gehitu ziren otsailean eta % 2,1 eta % 2 jaitsi ziren urtarrilean eta martxoan, hurrenez hurren, 2024aren aldean.

Euskal AEko egoiliarren heriotzak, hilabeteka



Iturria: Eustat. Heriotzen estatistika

Lurralde historikoen arabera, Araban 854 heriotza izan ziren, % 6,1 ko igoerarekin, hazkunde erlatibo esanguratsuena. Bizkaian 3.454 heriotza izan ziren, hau da, % 1,5 gehiago. Gipuzkoan, ordea, 1.992 hildako izan ziren, hau da, % 2 gutxiago. Sexuaren arabera, 3.305 emakume eta 2.995 gizon hil ziren: % 2,3ko igoera emakumeentzat eta % 0,4ko jaitsiera gizonentzat.

Lehenengo hiruhileko honetan izandako heriotzen artean, 5 urtebetetik beherakoak (% 0,1) eta 128 ehun urtetik gorakoak (% 2) izan ziren.

Heriotzak bizilekuaren lurraldearen, betetako adinaren, sexuaren eta heriotza-hilabetearen arabera (1). 2025/I

	2025/I		2024/IV		2024/IV		2024/I		Gehikuntza (%)
	KOP	%	KOP	%	KOP	%	KOP	%	
HERIOTZAK	6.300	100,0	5.520	100,0	14,1	6.239	100,0	1,0	
Egoitza duen lurraldea									
Araba / Álava	854	13,6	735	13,3	16,2	805	12,9	6,1	
Bizkaia	3.454	54,8	2.931	53,1	17,8	3.402	54,5	1,5	
Gipuzkoa	1.992	31,6	1.854	33,6	7,4	2.032	32,6	-2,0	
Adina									
1 urtetik beherakoak	5	0,1	4	0,1	25,0	8	0,1	-37,5	
1-19 urte	10	0,2	12	0,2	-16,7	12	0,2	-16,7	
20-39 urte	35	0,6	34	0,6	2,9	28	0,4	25,0	
40-59 urte	338	5,4	332	6,0	1,8	348	5,6	-2,9	
60-79 urte	1.664	26,4	1.553	28,1	7,1	1.667	26,7	-0,2	
80-99 urte	4.120	65,4	3.477	63,0	18,5	4.048	64,9	1,8	
100 urte edo gehiago	128	2,0	108	2,0	18,5	128	2,1	0,0	
Gizonak	2.995	100,0	2.715	100,0	10,3	3.008	100,0	-0,4	
1 urtetik beherakoak	4	0,1	2	0,1	100,0	5	0,2	-20,0	
1-19 urte	6	0,2	5	0,2	20,0	6	0,2	0,0	
20-39 urte	25	0,8	24	0,9	4,2	17	0,6	47,1	
40-59 urte	225	7,5	214	7,9	5,1	260	8,6	-13,5	
60-79 urte	1.007	33,6	991	36,5	1,6	1.059	35,2	-4,9	
80-99 urte	1.710	57,1	1.466	54,0	16,6	1.643	54,6	4,1	
100 urte edo gehiago	18	0,6	13	0,5	38,5	18	0,6	0,0	
Emakumeak	3.305	100,0	2.805	100,0	17,8	3.231	100,0	2,3	
1 urtetik beherakoak	1	0,0	2	0,1	-50,0	3	0,1	-66,7	
1-19 urte	4	0,1	7	0,2	-42,9	6	0,2	-33,3	
20-39 urte	10	0,3	10	0,4	0,0	11	0,3	-9,1	
40-59 urte	113	3,4	118	4,2	-4,2	88	2,7	28,4	
60-79 urte	657	19,9	562	20,0	16,9	608	18,8	8,1	
80-99 urte	2.410	72,9	2.011	71,7	19,8	2.405	74,4	0,2	
100 urte edo gehiago	110	3,3	95	3,4	15,8	110	3,4	0,0	
HERIOTZA-HILABETEA									
Urtarrila	2.339	37,1			2.389	38,3		-2,1	
Otsaila	1.984	31,5			1.832	29,4		8,3	
Martxoa	1.977	31,4			2.018	32,3		-2,0	

(1) Hiruhileko honetako datuak behin-behinekoak dira. Aldaketak oraingo hiruhilekoaren aldean dira

Data 2025eko irailaren 15a

Iturria: Eustat. Heriotzen Estatistika

Heriotza-kausa nagusiak zirkulazio-sistemako gaixotasunak eta tumoreak izan ziren, 1.560 eta 1.529 heriotza eragin baitzituzten, hurrenez hurren; beraz, bien artean heriotzen % 49,1 izan ziren. Hirugarren heriotza-kausa arnas sistemako gaixotasunak izan ziren, 847 heriotzarekin (% 13,4). Nerbio-sistemako gaixotasunen ondoriozko heriotzak laugarren heriotza-kausa izan ziren, 374 heriotzarekin (% 5,9). Digestio-sistemako gaixotasunek 301 heriotza eragin zituzten (% 4,8).

Heriotza-kausen ordena aldatu egiten da sexuaren arabera; gizonen artean, tumoreak zirkulazio-sistemako gaixotasunak baino gehiago izan ziren; emakumeen artean, berriaz, zirkulazio-sistemako gaixotasunak izan ziren kausa nagusia eta tumoreak bigarren.

Heriotzak heriotza-arrazoiaren eta sexuaren arabera (1). 2025/I

	2025/I		2024/IV		2024/I			
	KOP	%	KOP	%	Gehikuntza (%)	KOP	%	Gehikuntza (%)
HERIOTZAK	6.300	100,0	5.520	100,0	14,1	6.239	100,0	1,0
Heriotza-kausa								
Guztira								
Neoplasiak	1.529	24,3	1.514	27,4	1,0	1.572	25,2	-2,7
Zirkulazio sistema	1.560	24,8	1.471	26,6	6,1	1.618	25,9	-3,6
Arnas sistema	847	13,4	399	7,2	112,3	688	11,0	23,1
Nerbio sistema	374	5,9	332	6,0	12,7	420	6,7	-11,0
Txegoste sistema	301	4,8	286	5,2	5,2	265	4,2	13,6
Gainerako kausak	1.689	26,8	1.518	27,5	11,3	1.676	26,9	0,8
COVID-19 baieztatuta	18	0,3	17	0,3	5,9	88	1,4	-79,5
COVID-19 probablea	0	0,0	0	0,0	0,0	0	0,0	0,0
Bestelakoak	1.671	26,5	1.501	27,2	11,3	1.588	25,5	5,2
Gizonak								
Neoplasiak	868	29,0	895	33,0	-3,0	938	31,2	-7,5
Zirkulazio sistema	717	23,9	714	26,3	0,4	778	25,9	-7,8
Arnas sistema	388	13,0	197	7,3	97,0	320	10,6	21,3
Nerbio sistema	151	5,0	159	5,9	-5,0	166	5,5	-9,0
Txegoste sistema	156	5,2	137	5,0	13,9	119	4,0	31,1
Gainerako kausak	715	23,9	613	22,6	16,6	687	22,8	4,1
COVID-19 baieztatuta	6	0,2	7	0,3	-14,3	38	1,3	-84,2
COVID-19 probablea	0	0,0	0	0,0	0,0	0	0,0	0,0
Bestelakoak	709	23,7	606	22,3	17,0	649	21,6	9,2
Emakumeak								
Neoplasiak	661	20,0	619	22,1	6,8	634	19,6	4,3
Zirkulazio sistema	843	25,5	757	27,0	11,4	840	26,0	0,4
Arnas sistema	459	13,9	202	7,2	127,2	368	11,4	24,7
Nerbio sistema	223	6,7	173	6,2	28,9	254	7,9	-12,2
Txegoste sistema	145	4,4	149	5,3	-2,7	146	4,5	-0,7
Gainerako kausak	974	29,5	905	32,3	7,6	989	30,6	-1,5
COVID-19 baieztatuta	12	0,4	10	0,4	20,0	50	1,5	-76,0
COVID-19 probablea	0	0,0	0	0,0	0,0	0	0,0	0,0
Bestelakoak	962	29,1	895	31,9	7,5	939	29,1	2,4
(1)Hiruhileko honetako datuak behin-behinekoak dira. Aldaketak oraingo hiruhilekoaren aldean dira								

(1) Hiruhileko honetako datuak behin-behinekoak dira. Aldaketak oraingo hiruhilekoaren aldean dira

Data 2025eko Irailaren 15a


Iturria: Eustat. Heriotzen Estatistika

Hazkunde begetatiboa negatiboa izan zen hiru lurraldeetan

Euskal AEko hazkunde begetatiboa negatiboa izan zen 2025eko lehen hiruhilekoan, 3.039 pertsonako jaitsierarekin. Hiru lurraldeetan galdu da biztanleria: Bizkaian 1.828 pertsona, Gipuzkoan 891 eta Araban 320.

2024an, Euskal AEn 171 heriotza izan ziren suizidioagatik edo nork bere buruari eragindako lesioengatik, hau da, 2023an baino % 21,3 gehiago (behin betiko datuak).

Bizilekua Euskal AEn zutenen heriotzak. Hileko datuak



Iturria: Eustat. Heriotzen estatistika

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel: 945 01 75 62